

HIRUGARREN UNITATEA

1. POPULAZIOA

1.1.Espainiako demografia erregimenen bilakaera

A)ERREGIMEN DEMOGRAFIKO ZAHARRA

- Kronologia: XX. mendearen hasiera arte
- Jaiotza tasa: Altua. Arrazoiak: Landako ekonomia-gizartearen nagusitasuna eta jaiotzak kontrolatzeko sistema eza.
- Heriotza tasa: Handia. Arrazoiak: Elikadura-dieta eskasa, gaixotasun kutsakor ugari, medikuntza atzeratua, heriotza tasa katastrofikoak (epidemiak, gerrak eta uzta txarrak), haurren heriotza tasa handia, bizi itxaropen txikia, osasun eta higiene baldintza txarrak.
- Berezko hazkundera: Txikia. Arrazoiak: Heriotza tasa altuagoa.

B)TRANTSIZIO DEMOGRAFIKO

- Kronologia: 1900-1975
- Jaiotza tasa: Behera egin.
 - Garaiak:
 - Berreskurapen garaia:
 - 1920-30: Oparotasun ekonomikoaren garaia
 - 1956-65: Gerraosteko baby boom-a
 - Beherakada garaia:
 - 1930-56: 1929ko krisia, II. Errepublika, Gerra Zibila eta gerraostea
 - 1965-75: Landa mundutik hirira emigratu eta etxebizitza arazoa eman
- Heriotza tasa: Jaitsi. Arrazoiak: Bizi kalitateak, dieta hobetzea, hezkuntza eta kultura ezagutzen gorakada, medikuntza eta osasun aurrerapenak eta haurren heriotza tasa txikitu. Heriotza katastrofikoaren uneak: 1918 eta 1936-39.
- Berezko hazkundera: Handia.

C) GAUR EGUNGO ERREGIMEN DEMOGRAFIKOA

- Kronologia: 1975etik aurrera
- Jaiotza tasa:
 - 1975-98 bitartean behera egin. Arrazoiak: Krisi ekonomikoa, mentalitate, pentsamolde eta balio aldaketa eta bikote harremanaren garrantzia.
 - 1998-2007 apur bat berreskuratu. Arrazoiak: Inmigrazioa eta egoera ekonomikoaren hobekuntza.
 - 2007tik aurrera behera egin. Arrazoiak: Krisi ekonomikoa
- Heriotza tasa: Txikia. Arrazoiak: Adinekoen kopuruak gora egin, heriotza tasa orokorraren arrazoiak aldatzea, hurren heriotza tasa txikitzea eta bizi itxaropenaren gorakada.
- Berezko hazkundea: Txikia

1.2.Espainiako demografia erregimenen bilakaera

A)BIZTANLERIAREN BANAKETAREN EZAUGARRIAK

- Ia 47 milioi biztanle
- Biztanleria dentsitatearen formula: $\text{biztanleria}/\text{km}^2$
- Biztanleria dentsitatea Europakoa baino txikiagoa
- Biztanleria dentsitatea sailkapen bat du
- Biztanleria dentsitatearen arabera inguruak:
 - BIZTANLERIA DENTSITATE HANDIKO INGURUAK
 - Madril
 - Katalunia
 - Euskal Autonomia Erkidegoa
 - Valentzia
 - Balearrak
 - Kanariak
 - Ceuta
 - Melilla
 - BIZTANLERIA DENTSITATE TXIKIKO INGURUAK
 - Gaztela-Leon
 - Aragoi
 - Gaztela Mantxa
 - Extremadura

B) BIZTANLERIAREN BANAKETA AZALTZEN DUTEN FAKTOREAK

- Biztanleen banaketa desorekaren jatorria
 - Industria aurreko aldian:
 - Dentsitate demografiko handienak mediterranean kostaldean eta dentsitate txikiak barrualdean
 - XVIan dentsitate handienak Penintsularen erdialdean eta iparraldean
 - XVIan biztanleria periferiarantz mugitu
 - XVIIIan kostalde eta uharteetan dentsitate handia eta barrualdeetan txikia
 - Industria aldian
 - XIXan desoreka indartu, Madrilera eta periferiako eskualdeek pisua irabazi eta barrualdekoek galdu:
 - Berezko hazkundearen eraginez (Glizia, Andaluzia, Murtzia)
 - Biztanleak erkarri zituzten industriak kokatzeagatik (EAE, Katalunia...)
 - Industriaren osteko aldia
 - XXan kontrasteak leundu
 - Industria-inguruen erakarpina murriztu
 - Barrualdean emigrazioa gutxitu
 - Madrilera, Mediterraneoko eta Ebroko ardatzak sendotu
 - Deskontzentrazio demografiko eta ekonomikoak oreka demografikoa handitu

C) LURRALDE DESOREKAK BIZTANLERIAREN BEREZKO MUGIMENDUAN

- Gaur egungo egoera:
 - Autonomia erkidegoetan jaiotza-tasa, heriotza-tasa eta berezko hazkundearen tasa txikiak
 - Adinen araberako egitura kontrasteak. Arrazoiak: Heredatutako arrazoiak (jaiotzaren jokabidea, garapen ekonomikoa) eta gaur egungo arrazoiak (Krisiaren osteko garapen ekonomikoaren faktore berriak, atzerriko migrazioa)
 - Autonomia Erkidegoen arteko taldeak: Dinamismo demografiko handiko autonomia erkidegoak (Jaiotza-tasa handia, heriotza-tasa txikia eta berezko hazkunde handiagoa eta egitura demografiko gazteagoa) eta gainbehera demografikoan dauden autonomia-erkidegoak (Jaiotza-tasa txikiagoak, heriotza-tasa handiagoak eta berezko hazkunde txikiagoa, egitura demografiko

zahartua, iraganean emigrazio handia jasan eta atzerriko immigrazio txikiagoa)

1.3.Espainiako migrazio mugimenduak

- Migrazioa: Biztanleek espazioan buruturiko mugimenduak
 - Emigrazioa: Biztanleak jaioterritik irtetea
 - Immigrazioa: Biztanleak jomuga batera iristea
- Migrazioa saldoa: Immigrazio eta emigrazio arteko balantzea
 - Balantze positiboarekin immigrazioa eman
 - Balantze negatiboarekin emigrazioa eman

1.BARRUKO MIGRAZIOAK

A)TRADIZIOZKO BARRUKO MIGRAZIOAK

-Ezaugarriak:

- 1900-1975 bitartean
- Bi mota:
 - Urtaroko eta aldizkako migrazioak
 - Nekazaritzako exodoak
- Nekazaritza eta eraikuntzako lanak egitera
- Aldiak:
 - 1936-50: Landa exodoa gelditu
 - 1950-70: Hazkunde demografikoa (mekanizazioa eta garapen-lanak zirela eta)
 - 1975tik aurrera: Krisi ekonomikoa eta industria-birmoldaketa izan zela eta, emigrazioa nagusitu zen.
- Inmigrazio-inguruak: Mediterraneoko arkua, Ebro harana eta EAE
- Migrazioaren motibazio nagusia lana zen
- Norabide bakarreko fluxua: landatik hirira
- Emigranteen profila: prestakuntza-maila txikiko gazteak

-Tipologiak:

- Urtaroko migrazioa eta aldizkako migrazioak 1960
 - Landa ingurunetik beste landa ingurunetara edo hirira
 - Mahats edo oliba bilketa
 - Aldi baterakoak
- Nekazaritzako exodoak 1900-75
 - Landa eremuetatik industriaguneetara eta, geroago, turismo-guneetara
 - Industrian edo zerbitzuetan lan egonkorra
 - Iraupen luzekoak

-Ondorioak:

- Demografikoak
 - Biztanleriaren banaketa (barnealdea hustu zen eta dentsitate handia egon zen periferian)
 - Sexu egitura (emigrazio-inguruetan maskulinitasun-indizea handitu zen)
 - Adin egitura (landa eremuak zahartu eta hiriak gaztetu)
- Ekonomikoak
 - Azpibiztanleria-deseconomia (pertsonek gazte eta prestatuak landatik alde egitean, bertako produktibitateak behera egin zuen)
 - Pilaketa-deseconomia (hirietan, berriz, inmigrazio masiboak lurzoru, etxebizitza, ekipamendu eta zerbitzu gabezia eragin zuen langile auzoetan)
- Sozialak
 - Asimilazio arazoak (balio tradizionalenok landa. eremutik gizarte hiritan modernoagora)
- Ingurumenekoak
 - Emigrazio eremuetan ekosistema tradizionalak desagertu
 - Hirietan, hazkundera kutsadura atmosferikoa eragin zuen

B) GAUR EGUNGO BARRUKO MIGRAZIOAK

-Ezaugarriak:

- 1975(krisaldia)-gaur egun
- Motibazio desberdinak (lana, egoitza, sorlekura itzuli...)
- Fluxu migratorio biziak eta norabide askotakoak (azpigaratutako herrialdeetatik garatuagoak dauden herrialdeetara)
- Profila: Gazteak, adinekoak, prestaturiko jendea, prestatu.gabeak...

-Nekazari exodoa:

- Landa eta hiri-inguruen artean eman zen
- Gaur egun, nekazari exodoak oso balio txikia du, baina gora egin lezake nekazaritza modernoa dela eta.

-Migrazio joerak:

- Laneko migrazioa
 - Beste eskualde batzuetako probintzietara migrazio gutxi
 - Tradizioz emigratzaileak izan direnak joera jarraitzen dute
 - Eskualde eta probintzia barneko migrazioek gora egiten dute
 - Udalerri barruko migrazioak aldatu (udalerri handiek eta hiriburuek saldo negatiboa zuten)
 - EAEn atzerriko immigrazioak gora egin zuen 1990 hamarkada erdiladetik
- Egoitza migrazioak
 - Gazteek eta erdiko klaseek etxebizitza merkeak eta ingurumen-kalitatea bilatzen dute
 - Hiri barruko migrazioak batez ere, hiri nagusi eta periferiaren artean
 - Kasu batzuetan auzoko probintzia merkeagoetara
- Itzulera migrazioa
 - Biztanleak emigratio-inguruetara itzultzen dira
 - 55 urte gorakoak dira batez ere (erretirodunak edo aurre-erretirodunak)
 - Orduetik aurrera migrazioen protagonistak gazteak
- Ohiko mugimenduak
 - Arrazoi nagusiak: lana eta aisia
 - Lanak pendulu-mugimenduak eragiten ditu bizilekua eta lantokiaren artean, hiria era periferia artean
 - Aisiak asteburuko era turismoarekin lotutako mugimenduak, bizi-maila orokorra hobetu delako

-Ondorioak:

- Hiri guneko populazioa zahartzea
- Periferiako zerbitzuen eskaria handitzea
- Lurraldeen barruko populazio desorekak
- Landa ingurura itzultzea: gainzahartze landa
- Pendulu mugimenduak: zirkulazio arazoak, komunikabideak eta erregai-kontsumoa

2.KANPOKO MIGRAZIOAK

A)OZEANOZ EDO ITSASOZ BESTALDEKO EMIGRAZIOA

-Ezaugarriak:

- Emigrante gehienak Latinoamerikara joan ziren eta bigarren mailan Estatu Batuetara, Kanadara eta Australiara
- Emigrazio mota desberdinak egon ziren: emigrazio lagundua, aldi baterako eraikuntza lanetarako edota nekazaritza-eginkizunak egiteko

-Lehen etapa:

- 1850. urtetik Lehen Mundu Gerrara arte (1914)
- Amerikarako emigrazioa, XVI. mendeko konkistarekin hasi zen
- Asko murriztu zen bi arrazoiengatik: Borboitarren populatzearen aldeko politikagatik eta antzinako koloniek independentzia lortu zutelako
- 1853tik egoera aldatu zen hurrengo arrazoiengatik: Latinoamerikako herrialdeek immigranteak behar zituzten populatzeko, baliabide ekonomikoak ustiatzeko eta azpiegitura handiak eraikitzeko. Immigrazioa erraztu.
- Emigrazioa konponbidea zen nekazaritza-atzerapenaren aurrean eta gazteek hiru urteko soldadutza luzea saihestu nahi zuten
- Emigrante gehienen profila: Gizona, gaztea eta ezkongabea, nekazari edo abeltzaina
- Jatorria: Galizia, Asturias eta Kanariak
- Helmuga: Argentina, Kuba, Brasil
- Arrazoiak:
 - Inguru atzeratuak
 - BH handiko guneak
 - Nekazaritza egitura (lurraren jabetzaren banaketa)
 - Kualifikazio gutxiko gizonak

-Bigarren etapa:

- Bi mundu gerren artean ozeanoz gaindiko emigrazioak behera egin zuen
- Arrazoiak:
 - Lehen Mundu Gerran sortutako segurtasun eza
 - 1929ko krisi ekonomikoak Latinoamerikako herrialdetan eragina izan zuen
 - Gerra zibilean era gerraostean garraio eskasia eta kanpora irteteko zailtasunak egon ziren, eta frankismoak Espainia berreraikitzeke oinarritzat populatze-politika sustatu zuen

-Hirugarren etapa

- 1945-60 bitartean ozeanoz gaindiko migrazioa berreskuratu zen
- Arrazoiak: Espainiatik askatasunez irteteko baimena (NBEk nazioarteko blokeoa kentzea eta EEBBk Francoren erregimenarekiko zuten jarrera aldatzea)
- Jatorria: Galizia eta Kanarietatik gehien bat. Asturiaseko emigrazioak behera egin zuen
- Helmuga: Venezuela, Argentina eta Brazil
- Profila: Amerikako herriek, ekonomia bultzatu nahian, prestakuntza handiagoko immigranteak behar zituzten, hori dela eta, joerak behera egin zuen.

-Laugarren etapa:

- 1960tik aurrera ozeanoz gaindiko emigrazioak behera egin zuen
- Arrazoiak: Latinoamerikako ekonomiak gainbehera izan zuen Europako emigrazioarekin lehia handia zela eta

-Gaur egun: Zifrak oso txikiak dira eta itzulerak dira nagusi. 2008tik aurrera petrolio krisia dela eta oso urria da.

B) EMIGRAZIOA EUROPARA

-1950era arteko etapa:

- Eskasa eta urtarokoa izan zen
- Jatorria: Levante
- Helmuga: Frantzia
- Profila: Nekazariak, eraikuntzako langileak eta etxeko zerbitzuko emakume gazteak (gerra zibileko errefuxiatu politikoak)

-1950-73 arteko etapa:

- Europarako emigrazioaren une gorena izan zen
- Emigrazio iraunkorra izan zen arrazoi hauengatik:
 - Europan 2. mundu gerraren ostean, berreraikuntzarako eskulanaren beharra zuten
 - Espainian biztanleria-soberakina zegoen nekazal eremuetan eta industria nazionala ez zen nahikoa soberakina jasateko. Beraz, Amerikara emigratzeko mugak zirela eta, Europa emigratu zuten, han soldatak hobeak zirelako
- Jatorria: Espainia osoa, bereziki, Galizia eta Andaluzia
- Helmuga: Frantzia, Mendebaldeko Alemania eta Suitza
- Profila: Gazteak eta prestakuntza baxuko jendea

-1973-2008 arteko etapa:

- Petrolioaren krisiarekin, behera egin zuen Europarako emigrazioak (Mendebaldeko Europan langabezia igo zen eta emigrante asko itzuli ziren), soilik alde baterako migrazioak izan ziren etapa horretan
- Jatorria: Galizia eta Andaluzia
- Helmugak: Frantzia eta Suitza
- Profila: Nekazaritzan, industrian edo eraikuntzan aritzeko gizon gazteak

-2008tik aurrerako etapa:

- Etapa horretatik aurrera gora egin zuten berriz Espainian Europarako emigrazioak, 2008an emandako finantza-krisia zela eta
- Helmugak: Alemania eta Suitza gehien bat
- Profila: Espainiar ezberdinak, proiektu berriak hasi nahi zituzten gazteak bereziki

-Gaur egun:

- 2008ko krisiaren arrastoak geratu direnez, emigrazio horiek oraindik ematen dira
- Gehienak gazteak eta bizi-proiektuak aurrera eramateko helburuarekin

2.1. KANPOKO MIGRAZIOEN ONDORIOAK

-Demografikoak:

- Espainiako biztanleak gutxitu
- Biztanleriaren banaketa

-Ekonomikoak:

- Langabezia leundu
- Emigranteek bidalitako dibisei esker garapen ekonomikoa finantzatu eta merkataritzako defizita murriztu
- Bankuek aurrezki asko inbertitu zituzten eremu garatuenetan

-Gizarte ondorioak:

- Gizarteen hizkuntza eta ohituren txokea (jomugako herrialdeetan iritsi ziren gizarte, hizkuntza eta ohitura ezberdinak)
- Bizi baldintza kaskarrak (familietatik urrundu behar, etxebizitzak kalitate gutxikoak)
- Lan egoera latzak (bertako langileek baino diru gutxiago jaso)
- 1975ko krisiaren ostean emigranteak lan postuetatik kaleratu zituzten lehenago